

# Luzia Areitioaurtena: “Gure frontoian 40 raketista gengozen”

Ermuko “Erromadetako” etxeko alabia. Raketista moduan hasi eta 15 urtekin Barzelonara juan zan, 8 urtez jokatzuz. Ordukuak gogoratzeko berakin egondakuak gara.

## - Noiz hasi ziñan pelotan?

Gazte-gaztetan. Eibarrera juaten giñan entrenatzera, Batzokixa dauan lekura; eibartar asko egon ziran raketista jokuan. Gizon batzuk etortzen ziran, ikusi neskak eta kontratuak eixera. Nik 15 urte nekazen Barzelonara ailegau nintzanian; 1941ko azarua zala goguan dakat.

## - Etxekuak 15 urteko nes-kato bat hain urrin bialtzeko, ausartak ez?

Ezaguperia be baeken, Mallabiko Rosita Arregi be bertan euan eta trankillao bialdu be. Ermutik alkarrekin juan gintzazen Conchita Bustindui eta bixok. Etera ein bihar bizimodua nunundik!

## - Frontoiak, nun euazen?

Barzelonan, Madrillen, Sevillan, Valladoliden, Valenzian, Zaragozan, Logroñon, Sabadellen, Salamankan, Palmasen, Tenerifen, Argentinan, Mejikon ontzurarte... Etera kontuak, Barzelonan gure frontoian bakarrik 40-41 raketista gengoan kontratauta. Neskenak bost

frontoi euazen ‘Txiki’, ‘Nuevo Mundo’, ‘Colón’, ‘Principal Palas’, ‘Condal’ eta danak beteta. Sasoi baten gaiñera enpresarixuak eiñ eben frontoiz aldatu neskak, batzuk ekarri gurera guretik Madrillera eruan... Conchita eta bixok Valenzian egon giñan hille bixan; beste batzuk etorri Barzelonara eta halantxek.

## - Euskal Herrixan, nun?

Donostian, bakarra. Kanpuan ugarixuak ziran; hamen gizonen esku-pelotia euanez indartsu...

## - Modan ipiñi zan raketista juatiori?

Bai, modan modan. Gerra aurrian hasi eta haren ostian indar itzela hartu eban raketia. Unibertsitatera ez zan juan bihar, irabazi be politxo eitxen zan eta puntarengue-nak, ondiñok hobeto.

## - Zenbat tantora izaten zan?

Gaztiauak 25era eta bes-tiak 30era. Partiduan aparte izaten ziran kinielak, Ameriketaz zestularixen modura. Bost lagun izaten dira eta



unuak bigarrenakin jokatzen dau; bixetatik tanto gehixen etarutzen dabenak, hirugarrenakin gero eta halan, txandaka. Guri pagatzen oskuen 5 pzta. irabazliari eta 4 pzta. ‘colocada’ri, bigarren gelditzen zanari. Biri pagatzen otsen bakarrik; gehixen ein dabenari eta hurrenguari. Zenbat bidar eitxen genduan, irabazten gendunian kinielia, han kanpuan egoten ziran platano saltzaillienan juan eta pzta. bira emo-

ten oskuen platanuokin, etxera. Conchita eta bixok launa platano jan, mesilla-notxe guztixa azalez bete eta ohera!

## - Irabazitxako dirua, etxera bialdu?

Pixkat bai. Korreetik. Kostatzen jatan niri ha papela betetzia nire apellidu bixokin! Areitioaurtena Isasi-Isasmendi. Inunbez ez ziran kabitzen!


## - Zer jaten zenduen?

Emoten oskuena eta gitxi

## OUTUMURO KAFETEGIA

- Kafe bereziak
- Aukera handia TE eta INFUSIOETAN
- Tarta bereziak

• Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu



Zubiaurre 20

Pintxoak, otartekoak...  
eta hostalarien umore ona

## "Monja konmentuan lantzek egoten giñan"

zan. Nik beti esan dot hantxe pasau nebala benetako gosia. Gerra ostian Ermuan, hamendik ez bazan hortik, basarrixetatik eta zeozer ekarten zan; Barzelonan gaxaua zan gauzia.

- **Frontoira urtetzeko, zelan jantzen zan?**

Zuri. Belauna tapatzera ino gona luziak, lotzeko zapatilla zurixak, arkondara baten moduko brusia eta gerriko gorrixa edo urdiña.

- **Erreza zan min hartzia?**

Pelotiakin edo raketiaquin buruan jotia izaten zan arriskutsuena; pelotakada baten gora-beheran, hildakua be egon ziran. Ostian gorputzian eta ezebez, hanka bihurrituren bat edo... Hamentxe dakat nik bekoki erdi-erdixan seiñalia, pare-tian koska bat euala eta pelotia jeta eindakua.

- **Gaixotu edo perioduakin egon ezkeru?**

Perioduakin 3 egun eukitze genduzan jai; anunzia-tzen genduan eta libre emote oskuen. Gazte izan arren, batzuk titi edarrak euki be eta goguan dakat sostenik barik jokatzten genduala.

- **Raketistia izateko, zer bihar zan?**

Bat, gogua. Gero eiñaz eiñaz indarra be eitzen da, eskumuturrian gehixen bat. Erreflejuak, antxixketan nork gehixao ein, sakian potentzia... dana bihar da.

- **Nobixo-nobixa konturik eta?**

Bai, makiñatxo bat ezkondu ta be ein ziran. Gu behintzat monja konmentuan lantzek egoten giñan; hantxe kuarto baten sartuta, bingo edo loterixara jokatzten kua-drillan, tokatzten jakunian

urtetzia partidura antxixketan juan, amaitxutakuan zuzen barrio etxera... Ene!

- **Ikuslegua, neskak edo partidua ikustera juaten zan?**

Batzuk juango ziran, badakizu artietan neska llama-tibak be baeuazen eta badakizu, pelotia juaten jakunian, gonia mobidu eta iztar-rak ikusi... Orduan zeñi ikusten jakozan ba iztar-rak?

- **Txarto esaka eta egoten jatsuen jendia?**

Ez, gitxitxan. Gehixengua frontoira jokua ikustera edo dirua jokatzera juaten zan. Jokolari asko euazen, diru asko jokatzten. Barzelonan estraperlo haundixa euan, ze algodoiak, telak eitxeko, diru asko mobitzen eban ixillian eta hori frontoian igarri eitzen zan. Dirua euan jokatzeko dana falta zalako, dana!

- **Erdera, bertan ikasi zenuan?**

Han katalan; segiduan ikasi be. Neska katalan batzuk tartian egoten ziran eta ze-

ozer esan nahi bagenduan gure artian, euskeraz eitxen genduan eta txarto hartze eben; hain txarto ze, katalan eitxe ebenian guk aitzu eitxen gendula. Hasarratu eitxen ziran.

- **Herrixan, Ermuan, kritikatzten ziñuezen?**

Baiba, beste zeregiñik be ez eken juan zienengaitxik txarto esaka ibiltzia baiño! Etorri hona udan eta tratatzten giñuezen ustez ez dakit zer ein bihar gendula eta nik esaten notsien errezausa zala Ermuan Acción Catolican egotia frontoian baiño. "Zer eitxen dozue ba? Kalian ibilli, domeketan bokadillo bat hartu eta mendira edo Drogeten itxurrira juan!". Frontoian neska ikusgarriak euazen; bateko bonboiak bialdu dotsiezela, besteko lorak edo sarrerak antzerki baterako... Urten eta askok persona edo igual kotxia eukitzen eben atian zain, gonbitia eitxen hara edo hona juateko. Horrek danori ezetz esatia eta danengandik aldetzia gaxaua zan Acción Catolican egotia baiño!

- **8 urte jokatzten eta Ermura gero...**

Bai, han pelukera ikasi neban; laga dana eta bueltau nintzan, Estaziño kalia, etxian, pelukerixia ipintzeko. Eugenio Unamunokin ezkondu nintzan urte pare batera eta lau seme-alaba dakadaz.


- **Batzen zarie raketistok?**

Bai Itziarren eta Sevillatik, Madriletik eta Ameriketatik be etorritxakua dira batzuk. Ipoin mordo bat akordura ekarri eta pozik!

Estibalitz González



Etetik urrin, bizimodua etara ein bihar.



### PERSIANAS ORBE

- muntaia eta konponketa
- motorizazioa
- pertsiana dekoratiboak
- pertsiana bilgarriak
- segurtasun pertsianak
- moskiterak

Zearreko buelta, 2 • 943 17 66 34 • 630 01 13 41

**mari  
asun**  
LORADENDA  
Diputación, 9 - ERMUA - Tel. 943 174379